

BERMEO / Hainbat lan saritu dituzte VI. Narrazio lehiaketan

Seigarren urtez antolatu dute Bermeoko Narrazio Lehiaketa liburutegiak eta herriko ikastetxeek eta ikastolak.

NATALIA SALAZAR

Herriko ikastetxe guztietako eta ikastolako ikasleen sariak saritu dituzte aurten ere, seigarrenez, Bermeoko Uria Narrazio lehiaketaren bidez. Zapatuan egin zuten ikasleen lanak saritzeko Joxe Miel Barandiaran Udal Liburutegiak eta herriko ikastetxeek eta ikastolak antolatutako ekitaldia, Nestor Basterretxea aretoan, Apika antzerki taldearen gidaritzapean. Zortzi urtetik hemezortzi urtera bitarteko ikasleek parte hartu dute lehiaketan, hain zuzen, Derrigorrezko Bigarren Ziklotik hasi eta Batxilergora arte. Maila bakoitzeko irabazle bat eta bigarren sailkatutako ipuinaren egilea saritu zituzten. Hala ere, finalista guztiek ere diploma jaso zuten. Bestalde, iaz ipuin lehiaketarako idatzitako istorioekin liburuxka bat argitaratu dute aurten ere eta hori ere banatu zieten finalistei eta sarituei.

Antzerkia eta sariak

Sariak banatu aurretik, bestalde, antzerki saioa eman zuten Apika taldekoek. Nestor Basterretxea aretora bertaratu ziren ikusleak ere agertokira igo zituzten eta giroa alaitu zuten.

Ikasle, guraso eta irakasleez gain, liburutegiko eta Udaleko ordezkariak ere izan ziren han.

Irabazleak

L.H. Bigarren Zikloa. Goizeder Goikoetxea Reina. 'Bermeoko gaueko andre magikoa'.

L.H. Hirugarren Zikloa. Leire Juaristi Torrealdai. 'Ane eta erloju magikoa'.

D.B.H. Lehen Zikloa. Gorane Larrazabal Rica. 'Neska txiro bat mundu aberats batean'. D.B.H. Bigarren Zikloa. Leire Ariztegi Zumeta. 'Ba al dago iñor etxean?'. Batxilergoa. Olatz Telletxea Beitia. 'Iraganeko itzala'.

Bigarren sailkatuak

L.H.2. Iker Mendoza.

L.H.3. Miren Aizpuru.

D.B.H.1. Laura Bilbao. D.B.H.2. Irati Etxebarria.

Batxilergoa. Amaia Zapiain.